

bilatu...

Iritzia

Larunbata, 2009ko azaroak 7 - 09:23

[Hasiera](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Kanalak](#)
[Zuzenekoak](#)

[Paperekoa](#)
[Iragarki laburrak](#)
[Hitza](#)

[Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | [Plaza](#)

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Iritzia](#)

2006-06-17

Larrepetit

NAGORE AMONDARAIN

Barruan daramagu

Iritsi gara. Ibilbidearekin hastea baino ez da geratzen. Berdin dit eurpean zein eguzkitan. Hiritik asko atera gabe sartu naiz Armentia basoan, dena prest omen dago biharko jairako. Historian barrena ibilaldi bat egin genezake misterio-leku honetan. Indusketen palakada bakoitzeko mendeen pisua azaleratzen dugu. Erdi Aroko hilerri harrigarriak buru-hezur zulatuak erakutsi dizkigu, Euskal Herriko kirurgiaren lehen zantzuak. Arabako trepanazio hauek magia kutsua dute Latinoamerikan antzera, esaten denez garunetik gaitz txarrak ateratzeko erritoak omen ziren hauek.

Ez dakit Zuberora bezalatsu, baina lurralde nahiko ahaztua den honek izan du eta izango du birikek zein eztarriek bizirauteko behar duten hatsa. Bidegurutze estrategikoa izan da betidanik Armentia ingurua, galtzada erromatarrek zein Santiagoko bideak egungo itzalak eta argi-itzalen muga sendoak zeharkatu dituzte. Eta oraindik sakonago arakutzen badugu, Euskal Herriko lehenengo apezpikutzak Armentia elizan kokatzen zela digu ikerketak.

Frankotiratzaileek hil nahiko gaituzte lehen hezuraren bila eta ia-ia lehen euskaldunaren bila diharduelako Arabak azkenaldian. Eta zelan ez, Iruña-Veleia peregrinazio-leku bilakatuko denik ezazue dudarik izan. Euskararen aurreneko hitzen inguruan dagoen mendeen dantzak ezin gaitu zorabiatu eta gaur egunean inbertitzea baino hoberik ez dagoela esango digu bihar Araba Euskaraz jaiak.

Albisterik...

IRAKURRIENAK
Bozkatuenak
Bidalienak

- 1 'Egunkaria libre!' aldarrikatu dute musikariek Donostian
- 2 Bahitzaileek atzo Somaliara eraman zituzten hiru arrantzaleak berriro 'Alakrana'-n daude
- 3 Dimitri de Fauw txirindulariak bere buruaz bertze egin du
- 4 Laffage itota hil zutela baieztatu dute auzitegi medikuek
- 5 Abertzaletasun instituzionala indartzeko ituna proposatu du Hamaikabatek

[Hasiera](#) | [Euskal Herria](#) | [Ekonomia](#) | [Mundua](#) | [Kirola](#) | [Kultura](#) | [BerriaTB](#) | [Parte Hartu](#) | [Blogak](#) | [Bereziak](#) | [Paperekoa](#)

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**
 Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140

Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
 berria@berria.info - www.berria.info
 Lege Informazioa

Laguntzaileak: